

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Lurzatiak lagatzea "Legutio" VI-10090 ehiza esparrua berritzeko

"Legutio" izeneko VI-10090 ehiza esparrua berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Legutioko Udala eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskadiko ehizarenak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun baliaduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da udal honek baimena daukala ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Legutio, 2019ko irailaren 5a

*Alkate-lehendakaria*

**CÉSAR FERNÁNDEZ DE GAMARRA EGURROLA**